


## BIGARREN SEXUA I ETA II EGITEAK ETA MITOAK

**Simone de Beauvoir**  
Itzultzailea: Irene Arrarats Lizeaga  
Elkar-Jakin, 826 or.  
Donostia, 2019

### Sarrera pertsonala

Duela berrogeita hamar urte, 1969ko urrian, frankismoaren atzaparretatik iheska Parisera heldu nintzen. Berehala ulertu nuen, lehenik eta behin, frantsesa ikasi beharra neukala. Horrela, Alliance Française akademian izena eman nuen. Irakurtzeko lain banekiela iritzita, frantsesa egiaztatzen joan nintzenean Parisen hain aberats eta ugari zeuden liburu-dendetara hurbiltzen hasi nintzen. Beste anitzen artetik Simone de Beauvoirren *Bigarren Sexua* liburuak erakarri ninduen berehala. Erosi eta irakurri, liburua ezin utzirik jardun nintzen denbora librea nuen guztian, amaitu arte. Aldi berean Pariseko karriketan, garai haietan hain sarri egiten ziren emakumeen manifestazioetara joaten hasi nintzen. Eta hantxe, zein topatuko eta, besteak beste, Simone de Beauvoir berbera ezagutu nuen. Zer poza nirea! Protesten ekarpenaz gain, manifestazio haiek aurrez aurre lider feministak ezagutzeko aukera ere eman zidaten. Horien artean gogoan ditud, manifestari bezala, bata bestearengandik hurbil egonez, nahiz elkarriketarik ez egin, Simone de Beauvoir, Gisèle Halimi, Antoinette Fouque eta abar fisikoki ezagutu nituela.



1. irudia. *Bigarren sexua* argitalpenaren azala.

Feminista konpromisorako areagoko urratsak emateko orduan, hasteko, nik neuk garrantzi berezia ematen diot Gisèle Halimirekin aurrez aurre elkarrizketa ukaiteko aukera izan nueneko hitzorduari. 1971ko urtearen lehen egunetan izan zen. Gallimard argitaldaria aterako zuen *Le Procès de Burgos* liburua prestatzen ari zela, «Hitzaurrea» idazteko ETAko preso prozesatuek Jean-Paul Sartre hautatu zutela jakin, eta hark baietza eman zuenean, Pierre Vilar historialariaren bidez, Gisèlen etxera hurbiltzeko gonbidapena heldu zitzaigun Paulori, Jokini eta niri neuri batera. Gisèleri, hark ondotik Jean Paul Sartreri pasa ziezaion, euskal borrokaz geneukan dokumentazioa eraman behar genion. Abagune hark giza eskubideen aldeko borrokan alor desberdinetan inplikaturik bizi zen emakume adimentsu, bihotz-bero, zintzo eta kuraiaz gainezka ageri zena hurbiletik ezagutzera eraman ninduen. Gero nire feminismorako bidean eragin mugagabea izango zuen ezagutza hark. Garai berean, Jean-Paul Sartre, Simone de Beauvoir, Françoise Sagan, Henri Cartier-Bresson, Roberto Matta Echaurren eta abarren abokatua izateaz gain, 1971n, Simone de Beauvoir eta Jean Rostand-ekin «Choisir» mugimendu feministaren sortzaile bilakatu zen. Gogoratzekoa da ere, heriotzak eraman zuen arte, Jacques Monod Nobel sariduna bera ere, «Choisir» elkartearen ko-lehendakari alboan izan zuela beti Gisèlek. 1971ko apirilaren 5ean 343 emazte famatuk sinatuta *Nouvel Observateur* aldizkariaren bidez abortatzaileen manifestua argitaratu zuen. Eta, 1972an, «Choisir» elkartearen erabiliz Bobignyko prozesua eratu zuen, abortatze eta kontrazepzio librearen aldeko borroka ezinbestean betirako bideratuz. Horrela, berehalako urte haietan hainbat helburu lortu zituen aldi berean.

Niri dagokidanez, Paris utzi eta Iparraldera bizitzera etorri ginenean ere ez nuen une bakar bat galdu euskal feminismoa suspertzeko, okasioa nuen bakoitzean laguntzen eta bultzatzen. Eta 1974an, «Emazteek Iraultzen» elkartearen sorreran partaide izan nintzen Baionan.

Nire adierazpen-eremura hau guztia erakarriaz, hots, kantuaren alorrera, emakumeei buruzko kantuak egiten hasi nintzen. Lehenik, Etxepare gure lehen poetaren «Emazteen fabore» hitzei musika jarririk kantatzen hasi nintzen. 1972an grabaturiko diskotxo batean argitaratu ere egin nuen. Geroxeago nire «Ahizpatasuna» kantua etorriko zen. Eta horrela, nire kantu-eremua eta emakumeen aldeko militantzia bat eginik, betirako abian jarri nituen.

Orain bada, Irene Arrarats Lizeagag itzulirik, Simone de Beauvoirren *Bigarren Sexua* euskaraz argiratu berriaren edukia ilustratzeko, duela zenbait denbora egina nuen lantxo hau erabiltzea erabaki dut.

## Gogoetaren funtsa

### ***Bigarren Sexua*: humanismo integralaren aldeko feminismoa**

Aipaturiko pertsonalitate-militante aberats bezain kuraiatsu haien guztien ekimenean ardatzean eta sakonean, hala ere, Simone de Beauvoirren *Le Deuxième sexe* (1949) —*Bigarren sexua*— liburuak ekarritako zuzenaren aldeko feminismo planteamenduaren ikuspegia zegoen. Munduan helburu horren bila eginiko

lehen gogoeta ez bada ere berea, ordura artekoak ez bezala, berak humanismo integralerako bidean feminismoa ezinbestekotzat agertuz betirako erreferentzia egin zituen portaera-arauak arrazoiturik daramatza. Liburua eskuetan hartuz irakurtzeari ekin nion. Geroztik ez naiz gelditu feminismoaren alorrean, mundu mailan, argitaratutako idatzi guztiak nola aurreragokoak hala ondotikoak irakurtzen, eta beti, batzuekin gehiago eta beste batzuekin gutxiago, baina zerbait ikasten joan naiz ezin asezko gaian geroz eta areago murgilduz.

Zertan datza Simone de Beauvoirren *Le Deuxième sexe* —*Bigarren sexua*— liburuaren ekarpena?

Hasteko, esan dezagun bere obra oso propioa eta konfundi ezinezkoa dela. Autoritate nabarmenarekin eraikitako kreaio intelektualaren emaitza sakonena dariola. Baina aldi berean, sortzaile guztiak bezala hurbilagoko eta areagoko influentziak dauzkana ere bada. Aipa ditzagun lehenik beroriek, geroago Simonen ekarpen zehatzetan murgiltzeko. Ezaguna da 1929az gero Simone de Beauvoir eta Jean-Paul Sartre bata bestearen konplize izan zirela adimenduzko mugimenduetan. Aztertzaile jakitunen arabera, ezinezko gertatzen baita haien obrez mintzatzea geroago Simonek mitora altxatu zituen Jean-Paul Sartrekin izandako harremanak kontuan hartu gabe. Simone de Beauvoirrek, 1960an, argitaratu zuen *La Force de l'âge* —*Sasoiko adina*— obran kontatzen duenez, Sartrek asmatu omen zuen «beharrean» (haien bien artean), askatasunean eta gardentasunean fundatutako bikote originalaren eredua. Eta gisa hartan, 1929az gero, bien artean mende erdiz iraungo zuen elkarrizketa intelektual iraunkor konprometitua abiatu zutela diosku. Horrela, bada, bi idazleen obrak, elkarri keinuka arituz elkarren osagai izatera heltzen dira anitzetan.

Hori horrela fundatuz gero, murgil gaitezen bi intelektual aipatuen jokabide paraleloenera, esku artean darabilgun gaiak lotzen dituenara, alegia. 1946an, Sorbonan, *L'Être et le Néant* (1944) —*Izatea eta Ezereza*— liburuaren aurkezpen kariatara, Jean-Paul Sartrek hitzaldi ospetsu bat eman zuen, «L'existencialisme est un humanisme» —Existenzialismoa humanismoa da— izendatu zuena, eta geroztik frantses filosofiaren barne best-seller bat bihurtua dena. Bertan garatzen den tesiak perpaus batean laburbilduta hau dio: «Filosofia existenzialista filosofia humanista da, beste edozeren gainetik, askatasun humanoa oinarrian ezartzen baitu». Edo termino filosofikoetara hertsiaigo loturik, «existentziak aurre hartzen diola esentziari» aldarrikatzen da. Humanismoa, molde klasikoan ulerturik, pertsona humanoaren balio intrintsekoa doktrinatzat defendituz, pertsonaren loratzea ezeren gainetik eta guztiaren oinarrian ipintzen duen hura dela, alegia. Horrekin, humanismo integralera igarotzen gara. Geroxeago, 1949an, Simone Beauvoirrek feminismoa humanismo integraltzat definitzean filosofia berera eramango gaitu.

Humanismo integral horren jatorria eta ibilbidea nondik norakoa izan da? Hurbilenekoa frantses tradizioan daukagu, eta Jean-Paul eta Simone intelektualengan eragin nabarmena ukan zutenen artean Jacques Maritain filosofoaren *Humanisme intégral* (1936) —*Humanismo integrala*— obra daukagu. Bertan «kristautasun berri bat eskatuz, kristautasun profano baten alde mintzatzen da» filosofoa. Gogora dezagun ideologia eskuin-ertz-kolonial eta inperialista zuen «Action française»

mugimenduaren debekutik hamar urtera idatzi zuela autoreak, eta politikaren sakralizazioa gaitzesten duela. Jacques Maritainen pentsamendua Aristoteles eta Tomas Akinokoaren irakatsiak erabiliaz eraikia dago. Eta haiek bezala, bera ere, esperientzian eta arrazoiari, fedetik at, baina Errebelazioarekin ados egonez, fundatutako kristau filosofiaren artisau eta defenditzaile agertzen da. Modu orokorrean, Jacques Maritain metafisikoak zientzia litzatekeen filosofiaren emaitza defenditzen du eta zientzien erregina estatusa eskatzen du filosofiarentzat, beste bigarren graduako zientzien erroreak zuzentzeko rola ere aitortzen diolarik. Hala ere, kristautasunaren parametroetatik bideraturik egoten jarraitzen du haren humanismo integralak, aldiz, gure aipameneko autore biek, laikotasunetik eramateaz gain, gizarte-berdintasunean itsatsiko digute. Aldaketa sakonak eta emankorrak dira, noski, ekarri zituztenak.

Laburbilduz, nola deskriba ditzakegu *Le Deuxième sexe* —*Bigarren sexua*— liburuan dauden printzipio nagusiak?

Tesi filosofiko eta historikoen bidez feminismoa justifikatzera heltzen den lehen autorea dugu Simone de Beauvoir, nahiz eta onartu, eginkizun horretan aurrez saiaturiko hainbat emakumeren ekarpenak prestaturik jaso zituela. Simone de Beauvoirementzat gizon/emazte desberdintasuna historikoki eta ideologikoki eraiki izan da. Emakumeek beren destinoaren jabetza eskuratu nahi badute, ez da izan behar bereziki gizonaren oposatu den emakumearen erregistroan jokatzu, aitzitik biezat amankomunak diren humanoaren lorpenak berdintasunean landuz. Emakumeak eta gizonak bakoitzarenak osoarekiko ezinbesteko diren atalak dauzkate elkarrekin humanismo integralera ailegatzeko eginbidean. Historikoki gizonaren atalak bere aldetik egin du, eta emakumearen atala menderatuz bere zerbitzuko bihurtu du. Emakumearen atalak gizonaren pare-parekoa izanaz desberdina denak bilakaera propioa egingo duenean bakarrik humanismo integrala eraikitzea lortuko dugu. Atal biak humanismo integralaren osotasunerako ezinbestekoak baitira. Bistan da, ondorioz, emakumea ez dela une bakar batez ere gehiagoz gizonaren mendeko den «sexu» izan behar. Bidenabar esan dezagun Simone de Beauvoirrek aipatu liburu argitaratu zuen berean alde guztiak sutan jarri zituela. Hasteko, aldekoak pozarren pozik. Baina, aldi berean, aurkakoak biraoka eta kritika amorratuz gainezka bidea itxi nahi izan zioten liburuaren ekarpenari. Bigarren sail honetan kokatuz Vatikanoko inteligentzia dugu, beste behin ere, urrunen joan zena, alegia. Zeren bere «eleberrri» debekatuen zerrendan sartu baitzuen Vatikanokoak *Bigarren sexua* liburu. Azpimarragarria da ere, Simone de Beauvoiren ondoko ideia hau: existentzia humanoak daraman jokabide historikoa bikoitza dela, hots, transzendentziaren eta immanentziaren artekoa, baina gizonek euren proiektuen bidez transzendentzia agertzeko pribilegioa ukan dutenean, aldiz emakumeak bizitza errepikatzaile eta immanentzia sortzaile gutxikora behartuak izan direla. Ondorioz, errotik desberdin diren jokabide horiek nola sortu eta bilakatu izan diren historikoki ikertzea proposatzen du.

Liburuaren irakurlea, lehen unetik irakurri ahala aurkituko duenez informaturik lasai senti dadin, azken begirada orokor labur bat emango diegu liburuaren bi tomoei.

Lehen tomoan, bi hurreratze handitan jarduten da. Lehenean, «Mythes et réalités» —Mitoak eta errealtateak— aipatzean emakumeei buruz jakintzek ikuspegi antropologikotik, biologikotik, psikoanalisitik, materialismotik, historiatik eta literaturatik emakumeei buruz sortutako ikuspegi erratuak aztertzen ditu. Analisi bakoitzean eta guztietan, monismo kausala arbuiatzen du: horietariko edozer mota, bakarka ari denean, ez dela aski gizonak emakumearekiko sortua duen zapalkuntza adierazteko diosku; izan ere, emakumearen eraikuntzaz gizonaren Bestea bezala hartua baita emakumea. Nagusitasun maskulinoaren ideologia eraikitzeke orduan mitoen rola edukitako garrantzia aztertzeraz igarotzen da ondoren. Emakumeari dagozkion hainbat mito (amatasunarena, birjinarena, ama aberriarena, izadiarena, eta abar) biltzen dituen mito paradigmaticoak emakumea zepo pean jartzen saiatuz, indibidualtasuna ukatuz eta emakumeen eta bere egoeren singularitatea birrinduz ezinezko ideal batera so jartzen ditu. Betiereko emetasunaren mitoak emakumearen ideal ezinezko bat eragiten du, desengainatuta amaituko den itxaropena sortzen duelarik. Gisa horretan emakumezko errealak beti zamatzat edo bururatugabekotzat hautematera eramaten gaituela diosku.

Bigarren tomoan, Simone de Beauvoirrek emakumeak horrelako edo halako modukoak sortzez direla aldarrikatzen dutenen esentzialismoa deuseztatzea du helburu, eta horretarako, endokrinamendu sozialaren bidez diren bezalako emakumezkoak eraiki izan direla frogatuko du. Tesi hori adierazteko orduan, haurtzarotik hasiz eta nerabezarotik igaroz, harreman sexualak barne direla, emakumeari emandako hezkuntzan sostengatzen da. Aldi horietariko bakoitzean, agertzen du nola emakumeak bideratuak sentitzen diren euren subjektibitate transzendentea eta benetako abandonatzeraz, gizonarentzat rol baikor eta subjektibo oro eskusiban utziz, eta kontrapartidan proposatzen zaien rol «pasiboa» eta «besterentzailea» hartzeraz helduz amaitzen dutelarik. Oinarrizko printzipio honetatik partituz, emazte, ama eta prostituta rola aztertzen ditu, demostratuz emakumeak lanaren eta sorkuntzaren bidez transzenditu ordez, eginkizun monotonoetarako erabiltzen direla, hots, amatasunerako, etxeoandre rolerako eta libido maskulinoaren ontzi sexualerako. Hau guztia hain gordinki horrela agerturik izan bada ere, ez da pentsatu behar Simone de Beauvoirrentzat emakumeak aske izaten ez duenik jarraitzen. Beste behin ere, puntu honetan ere, jabetu gaitezen Simone de Beauvoir filosofo existenzialista denez, berarentzat izaki humanoen askatasun ontologikoak beti eta nonahi absolutua izaten jarraitzen duela: gizonak, nahiz historikoki emakumea objektu bihurtzeko ahaleginak egin, ez baitu sekula emaztearen askatasuna errotik moztea lortu. Gutxiena uste duenean berpizten ahal da hautsetatik. Emakumeak beti eta nonahi, egoera ustelenean ere, hots, transzendentzia maskulinoarengatik transzenditua denean ere transzendente izaten jarraitzen baitu.

Halarik ere, eta honetan dago Simone de Beauvoirren analisisen konplexutasuna eta zorroztasuna, emakumeak gertatzen zaienaren arduradun eta euren mendekotasun propioan partaide izan daitezke. Gisa horretan Simone de Beauvoirrek zintzotasun gabeko (Sartrek fede txarreko izenda lezake) hiru portaera bereizten ditu, zeinetan emakumeak euren transzendentziatik ihesi aurrez determinatutako balio eta

sinismenetan finkatzen diren. Hiru jarrera horiek beste hainbat erretratu eratzen dituzte, eta honako hauek dira: nartzisikoarena, maiteminduarena eta mistikoarena. Hiru kategoria aipatu horiek objektuaren mesedetan euren askatasunari ihes egitea daramate amankomunean. Nartzisikoaren kasuan, objektua beraren baitan datza, maiteminduarenean bere maitea da, eta mistikoarenean, absolutuan edo Jainkoan datza.

*Bigarren sexuaren* irakurleak zehatz-mehatz behar den denbora horretan inbertituz aterako dituen ondorio pertsonalak azpimarratzen saiatzeko asmorik gabe, *Bigarren sexua* liburua ageri praktikoan eragile ere badela esan dezadan. Jadanik aipatua dugu teoriako planteamenduaren originaltasuna, bada hori ez aski, Simone de Beauvoirrek emakumearen emantzipazioa bultzatzeko gomendio praktikoak proposatzen ditu ondorio bezala. Lehenik eta behin, emakumeari bere proiektu propioen bidez transzenditzea baimenduko diona egiteko eskatuko dio. Horrela, emakume modernoari balio handikoa izango zaio gizonen baldintza beretan «entseiatzen, jarduten, lan egiten, eta sortzen aritzeko aukerak eskuratzea. Gizonaz gaitzerraten aritu ordez, haren berdina eta pare-pareko deklaratu». Emakumearen berdintasuna ziurtatzeko, Simone de Beauvoirrek egitura sozialetan egin beharreko aldaketak aurreikusten ditu, horrelakoen artean leudeke kontrazepzioaren eta abortuaren legezkatzea, emaztearen askatasun ekonomikoa, eta gizonarekiko lortu beharrezko duen independentzia. Simone de Beauvoirrek emakumeen askatasunerako bidean tratatzen ikusten du ezkontza instituzionala, zeren erakunde horren baitan justifikatzen baitira senarraren, sendiko patriaren, emaztetasunaren eta etxeko esklabotzaren rol arkaikoenak.

Sarrera hau amaitzeko azalera dezagun *Bigarren sexuan* dagoen esaldi gogoangarri hau: «Norbaitek ez da emakume sortzen, aitzitik halakoz bilakatu egiten da». Humanismo integralaren ardatzean erroturik bultza dezagun emakumearen gabeziak betetzeko politika sozialak eragingo dituen feminismoa!

## **BI LIBURUKIETAKO GAI NAGUSIEN ZERRENDA:**

### **LEHEN TOMOA:**

Lehenbiziko partearen gai nagusia DESTINOA da.

1. Kapituluak: Biologiaren datuak.
2. Kapituluak: Ikuspegi psikoanalitikoak.
3. Materialismo historikoaren ikuspegia.

Bigarren partean gai nagusia HISTORIA da.

Hirugarren partearen gai nagusia MITOAK dira.

1. Kapituluak gizonak beti izan dituztela botere konkretuak ageri da.
2. Kapituluak sei azpiatal daude: a) Montherlant edo Higuinaren ogia; b) D.H. Lawrence edo Harrotasun falikoa; c) Claudel eta Jaunaren mirabea; d) Breton edo poesia; e) Stendhal edo egiaren kutsu erromantikoa; f) Emakumea haragi gisa aipatzen dutenak.
3. Kapituluak: emakumea eguneroko bizimoduan.

### **BIGARREN TOMOA:**

Lehenbiziko partearen gai nagusia HEZIKETA da.

1. Kapituluak: Haurtzarora.
2. Kapituluak: Neska gaztea.
3. Kapituluak: Sexu-iniziazioa
4. Kapituluak: Lesbiana.

Bigarren partearen gai nagusia EGOERA da.

1. Kapituluak: Emakume ezkondua.
2. Kapituluak: Ama
3. Kapituluak: Bizitza soziala.
4. Kapituluak: Prostitutak eta hetairak.
5. Kapituluak: Helduarotik zahartzarora.
6. Kapituluak: Emakumearen egoera eta aiurria.

Hirugarren partearen gai nagusia JUSTIFIKAZIOAK dira.

1. Kapituluak: Emakume nartzisista.
2. Kapituluak: Emakume maitemindua.
3. Kapituluak: Emakume mistikoa.

Laugarren partearen gai nagusia ASKAPENERANTZ da.

1. Kapituluak: Emakume independentea.

Ondorioa

*Maitte Idirin Solatxi*

